



MAXIXATZEN

Azkoitiko herri aldizkaria, 2017ko abendua - 3. urte zenbakia



Ongizaterako bidean

GALDETU AHALA ERANTZUN

Juan Carlos Perez musikari eta konpositorea elkarrizketatu dugu bere ibilbide profesionalaz. **12. or.**

IZENA TA DIZENA

Atzegi eta haren proiektuetako bat den Txolarte aisialdi gunea ezagutu ditugu. **6. or.**



ALDAKO

SARE ETA INFORMATIKA
ZERBITZUAK

Kale Nagusia, 46 • 20720 Azkoitia
Tel. 943 083 614 • 629 099 276
aldako.informatika@gmail.com



SAREAK, IRTEERAK ETA
ORDENAGAILU, MUGIKOR
ETA TABLET KONPONKETAK

Aldalur

100 urtez
gizonezkoak jazen

OPOR ETA JAI ZORIONTSUAK!
Kale Nagusia, 104
943851761
aldalursastreria@outlook.com

Zorionak
eta
Urte berri on!

ARANBARRI
Higaztzerri kuzbarrak
www.aranbarri.com

Nagusia, 31 behea • 20720 AZKOITIA
Tel. 943 85 11 74
pilikortabarria@hotmail.com

GABON ZORIONTSUAK
ETA URTE BERRI ON!

ARROSPIDE

OINETAKOAK
www.arrospide.es

AZKOITIA
KALE NAGUSIA, 35
TLF. 943025840-FAX. 943025835

AZPEITIA
C/ FORU IBILBIDEA, 2
TLF.-FAX 943811914
LOIOLAKO INAZIO HIRIBIDEA, 1
TLF.-FAX 943080631
info@arrospide.es

ATRASKUA

Cordonnier

ONDO PASAU
GABONAK!

Oinetako en konponketak

Nagusia 25, behea
cordonnieroinetakoak@hotmail.com
Tel. : 943000469

oskalherria
elekttrizitatea

ONDO PASAU GABONAK!
Elekttrizitatea
Mantentze-lanak
Argizatzea
Antenak
Atzetain automatikoak

Jon Pajuelo
672 178 952 / 943 15 11 00
Denda itxi dugu baina
lanean berdin jarraitzen dugu

e t k

Informatika Zerbitzuak
943 02 63 29

www.etkinformatika.com

BELAR DENDA
DIETETIKA
KOSMETIKA NATURALA

KALE NAGUSIA, 65, AZKOITIA
943 50 34 47

URBITARTE, 9BIS, AZPEITIA
943 15 00 23

EGUZKI

Senti
OSASUN ZENTROA

GABON ZORIONTSUAK
ETA URTE BERRI ON!

Opari-txartel pertsonalizatuak
egiten dira.

Oparitu
Osasuna!

943533729 636462851
Jandorianiz, 7, behea www.senti.eus

Gabonetan
ere

KIMU BAT
GARDEN

AZPEITIA • 943 15 00 85
www.kimubat.com

PLAZA ONDO
JUBILATUEN
TABERNA

Eguneko menua
karta
Razioak
Kazolatuak
Pintxoak
Plater kombinatuak
Ogiturtekoak

Kale Nagusia, 60
943089412

ONDO PASAU GABONAK!

PBSport

Ibaiondo, 7 Nagusia, 87
Tfnoa: 943025688 Tfnoa: 943852098
pbsport@pbsport.es

BOKATAK
RAZIOAK
HANBURGESAK
SANDWICHAK
PINTXO BEREZIAK
ARDO ESKAINTZA
ZABALA
TERRAZA HAUNDIA

NAGUSIA 81
TEL: 943063032
www.tta-kun.com
azkoitia_ttakun@hotmail.com

zendoia
igeltserotza

Era guzietako erreformak:
sukaldeak, bainugelak eta abar.

20720 AZKOITIA (Gipuzkoa) • Tel: 606837381
zendoiaigeltserotza@gmail.com

TIEN 21

LARRAMENDI

ONDO PASAU
GABONAK!

ELEKTRAGAILU ETA ALTZARIAK

Julio Urkixo etorb. 13 • AZKOITIA • 943 85 19 61
www.larramendijauregui.com



MAXIXATZEN
HERRI KOMUNIKABIDEA



Kale Nagusia, 62
Gipuzkoa, 20720 Azkoitia
943 85 36 17

www.maxizatzen.eus

ARGITARATZAILEA:
Maxizatzen Euskaldunon Elkarte

ERREDAKZIO TALDEA ETA
KOLABORATZAILEAK:

Naroa Olalde, Idoia Alberdi, Laida Beristain, Andoni Elduaian, Olaia Juaristi, Amaia Ugalde, Aitor Arruti, Gema Lopez eta Ainhoa Cuende

KOORDINAZIOA:

Olaia Juaristi

MAKETAZIOA:

Ane Larrañaga

PUBLIZITATEA:

Ainhoa Cuende. Tel.: 943 85 36 17

ZUZENTZAILEA:

Gema Lopez

INPRIMATEGIA:

Gertu inprimategia

TIRADA:

800 ale

LEGE GORDAILUA:

SS-706-97

ISSN: 1137-8891

Oharra:

Maxizatzenek ez du bere gain hartzen IRITZIAN eta GUTUNEAN adierazitakoaren erantzukizunik. Argitaratu ahal izateko, eskutitz guztiak ondo identifikatuta egon beharko dute. Ez ahaztu datu hauek jartzeari: izen-abizenak, NA eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 25 lerro izan beharko dituzte eta maxizatzen@maxizatzen.eus helbidera bidali beharko dira, hilabeteko azken astelehena baino lehen.

ABENDUKO ALDIZKARIAN ZER?

IRITZIXE

▶ Angel Rocha: 'Fidantzapean aske'

KALIN GALDEZKA

▶ Zer eskauko dixozu Olentzeroi eta Erregiei?

IZENA TA DIZENA

▶ Atzegi-Txolarte: ongizaterako bidean

GALDETU AHALA ERANTZUN

▶ Juan Carlos Perez, musikaria

KEJIE TA DESDITXIE

▶ Errepideak, espaloiak, bidegorriak eta zebra bideak

IRITZIXE

▶ MTA

BA AL DAKIZU?

▶ Polboroiak etxean egiteko errezeta

IRITZIXE

▶ Nagore Silvan: 'Fedea aitortzen'

KOMUNITATIN LEIXUE

▶ Sostenipe Talde Feminista

HILABETIN BEGIXETATIK

EZETZ ASMAU!

▶ Denbora-pasak

BERTSOA PAPEREAN

▶ Eneritz Artetxe: 'Justizia?'

MAXIXATZEN TXIKI

▶ Haurren txokoa

HARA!

▶ Kepa Alberdi: 'Izurriteak, gaixotasunetatik haratago'

HARA!

▶ Fuente de la fortuna, loteria denda

ESKURE KOMENI

EZETZ TOPAU!

AGENDIE

4

5

6

12

15

16

18

19

20

21

22

23

24

26

28

29

29

30



12

18

6



Fidantzapean aske

► Angel Rocha Azpitarte

4.000 mila euroko fidantza ordaindu eta gero aske daude, libre dira nahi duten hori egiteko. Herrian ekintza kultural bat antolatu nahi zuten, euskal musika talde baten kontzertua ordaindu eta ekarri dute herriko plazara. Azkoitiko eta inguruko herrietako gazte eta ez hain gazteen eskura jarri dute ekimen kultural aipagarri eta nabarmen bat. Euskaratik eta euskaraz sortutako talde baten sormen lanaren eta herriaren artean zubi lana egin dute. Asko kostata bada ere, azkenean, fidantza ordainduta lortu dute Azkoitiko tabernariak Su Ta Garren kontzertua antolatu ahal izatea.

Azaroaren 18ko gauerdian izan zen kontzertua enparantzan; festa, ordea, aurretik hasi zen. Arratsaldeko zazpietatik jendez mukurru zeuden herriko tabernak, gaztaina saltzaileak herriko eliz atarian duen saltoki dotore berriaren aurrean jende ilara luzea ikus zitekeen, herriko arropa dendetako erakusleihoei begira jendea Gabonetarako Olentzerori zer eskatu nahiko liokeen ari zen partekatzen lagunartean, herriko jatetxeetan ez zegoen lekurik afaltzeko, goizaldera arte herriko tabernetan jendetza ibili zen dantzan eta parrandan (herriko hainbat gazte lanean aritu ziren gau guztian soldata baten truke), goizaldean egunkari saltzaileek ere ale batzuk gehiago saldu zituzten paperezko euskarriak bizi dituen garai zail hauetan, eta okindegietan ere jendearen joan-etorria ohiko igande goiz batekoa baino handiagoa izan zen.

Hala eta guztiz ere, azkoitiar askok ziur nago beste interpretazio batzuk egin dituztela, beste egia bat eraiki dutela, eta hori ere zilegi da. Kale Nagusian edo inguruetan bizi diren herritarrentzat bizikidetzaren arazoa agerian egongo da; alegia, nola uztartu udazken gau eder batez disfrutatzen eta gozatzen ari diren gazteen eta aste gogor baten ostean deskantsu eta bake bila dabiltzanen asmo, nahi edo gogoak. Zikinkeria ere ohikoa baino handiagoa izango zen igande goizean, eta horrek ere emango zuen zer esanik. Goizean goizeko mezetara zihoazenek edota mendirako eliz atarian gelditu zirenek paira-

tuko zituzten usain eskasaren ondorioak kale garbitzaileen begiradapean.

Gertaera bat, eta interpretazio ugari, eta horiek guztiak multzotan batuz gero bi egia, elkarren aurrean mokoka, bakoitzak bereari eutsiz, arrazoia nork edukiko duen borrokan. Aldekoak eta kontrakoak. Beti bezala, askotan zeren alde edo kontra ari garen ere ahaztuta, baina tribu horren identitatearekin bukaeraraino iristeko prest.

Irtenbidea ez da erraza, baina ez zait iruditzen hain zaila denik ere. Lehenik eta behin, bakoitzaren ardurak eta konpromisoak zein diren zehaztu beharko da, eta gero horiek bete, eta ez badira betetzen, airtortu.

Hori guztia eraiki nahi badugu, fidantzek eta inposizioaren norabidean sortzen diren neurriek ez dute batere laguntzen. Hasteko, udalaren ardura edo zeregina da kontzertu bat herriko plazara ekartzea, kultur ekimenak sortzea (euskarazkoak badira, hobe), ekonomia sustatzea... Azken batean, herriaren eta herritarren alde egitea da hori, eta, beraz, berak egin ez eta hirugarren bati, tabernarien elkar-teari, ez lagatzea larria da. Ez egin, ez laga egiten eta oztopatu gainera.

Tabernariak ere badituzte beste ardura batzuk, eta horiek bete beharko dituzte: esaterako, zarata eta musikaren bolumena zaintzea, ordutegia errespetatzea eta adin txikikoei alkoholik ez ateratzea.

Eta gurasoen ardura da gure seme-alaba adingabeak goizaldeko lauretan kalean egotea eta balio positiboetan oinarrituko gazteak hezteak.

Ezin gara hasi pilotan, aitzakia bila, bakoitzarenak direnak besteari pasatzen. Gauza bat garbi daukat: ez dut gure "gazte" garaiko Azkoiti hartara itzuli nahi; ez dut nahi gure seme-alabak kotxean astebururo-astebururo atzera eta aurrea ibiltzea, ez dut nahi...

Zer eskauko dixozu Olentzeroi eta Erregiei?



Hegoi Arteaga

Ezerre ez dixobet eskatzen. Amak ekartzen duna aiatzen da beti: galtzetinek y poco más [barrez].



Loli Iruretagoiena

Ez det ezerre eskatzen, baino gero beti aiatzen da zeoze.



Margarito Benitez

Neretzat ja asunto hoiek pasau die. Eskau ez det ezerre eitten, baino aiatzen bada ondo hartzen det eta eskerrak ematen dittut.



Irene Alzelai

Oindik ez dakit zer eskatu. Zeoze eskatuko diet.

Jesus Juaristi

Ez dixobet ezerre eskauko; ez det ohitureik. Gero zeoze aiatzen da baino.

Adela Velez

Liburuak. Oso gogoko dut irakurtzea. Genero guztiak gustatzen zaizkit, eta batez ere historikoak.

Iñaki Gonzalez 'Paje'

Osasuna eskatzen diet nik.

Arantxa Garmendia

Umintzako jolasak Neuretzat mobil bat nahiko nuke, txikixek dana izurrau dit eta.

KALIN GALDEZKA





Ongizaterako bidean

1960. urtean, hainbat familia elkartu, eta adimen urritasuna duten pertsonen egoera hobetzeko hazia jartzea erabaki zuten, eskuz esku, elkarlanean. Urte horretan sortu zuten Atzegi, gizartea hobera aldatzeko helburuarekin. Bailaran, 95 familia bazkide daude, 54 kolaboratzaile inguru, 800 Atzegizale, eta horien inguruan hainbat profesional. Uria Olaizola familia da bazkide horietako bat, Lander semeak duen adimen urritasuna dela eta.

► Andoni Elduaien Soraluze

IZENA TA DIZENA

Uria Olaizola familiaren ustez, oraindik lan asko dago egiteko adimen urritasuna duten pertsonen eguneroko bizimodua hobea eta aberatsagoa izan dadin, baina «eguneroko lanari esker» bizi kalitatea hobetuz doala ikusten dute. «Gaur egun, gizartea informatuago eta sentsibilizatuago dago: eskola egonkorretan daude seme-alabak, lan munduan ere aukerak dituzte eta kalean ere aisialdian ikus ditzakegu», azaldu dute. Taldea gurasoek, langile prestatuek, boluntarioek eta bestelakoek osatzen dutela eta, Atzegi elkarte sendotzat dute. Denek euren seme-alaben edo anai-arreben bizia errazteko asmoz lan egiten dute. Euskarri sendoa da Uria Olaizola familiarentzat Atzegi, gauzak argitzen, nondik nora joan behar zuten ikusten, zer aukera zituzten jakiten eta gomendioak jasotzen lagundu baitie. Ondo gogoan dituzte hasierako urteetan familiak nola elkartzen ziren: bakoitzak bere esperientziak eta sentimenduak azaltzen zituen, baina besteak ere entzuten zituzten. «Beste familiak ezagutu eta elkarri laguntzeaz gain, une horietan babestua sentitzen zara, eta bakarrik ez zaudela ikusten duzu», esan dute familiako kideek.

Lander eskola egonkorreko ikaslea da. Txolarteko aisialdi taldera joaten da asteburuetan, eta udan taldearekin oporraldiaz gozatzera ere joaten da. Etxekoek azaldu dutenez, «oso gustura joaten da ekintza horietara; beretzat, kuadrillakoekin egoteko unea da». Ekintza desberdinak eginez autonomoago sentitzen dela nabaritzen dute. Gurasoek ere izaten dute zereginik, ordea. Landerren ongizatea dute

lehtasun, eta hori lortzeko bidean «pila bat ikasi» dutela jakinarazi dute. Ahalik eta ekintza gehienetara joaten saiatzen dira, mundua askotarikoa dela erakusteko; «horrek egiten gaitu aberats».

Boluntarioen lana funtsezkoa da Uria Olaizola familiarentzat ere. «Izugarrria da, zaila da haien lana hitz gutxitan azaltzea, baina benetan eskertzekoa da denbora librean gure seme-alabekin egotea», azpimarratu du Landerren aita Santos Uriak. Azkoitiarra da Uria, eta boluntarioak Landerren bizitzaren parte bihurtu direla esan du, denak «lagunak» direla. «Erakusteko nahiz ikasteko prest dauden gazte horiei asko zor diegu», dio. Aipagarritzat jo du, gainera, boluntarioek adimen urritasuna duten pertsonen garapen integrala sustatzeko duten helburua. Ahuleziak indartzeko bidean doaz, adimen urritasuna duten pertsonen autonomiari lagunduz.

Naroa (arriba), Esther (ama), Lander eta Santos (aita).



Txolarte, aisialdirako aukera



IZENA TA DIZENA

Esther Sudupe Uria (Azkoitia, 1971) eta Itziar Albizuri Alkorta (Azkoitia, 1971) kuadrilla bereko bi kide dira. Ez zituzten gizarte ikasketak egin, eta etxean ere ez zuten antzeko esperientziarik. Euren artean betidanik izan duten laguntzeko eta kooperatzeko grinak bultzatuta, Txolarteko begirale hastea erabaki zuten. Sudupe 1986. urtean hasi zen, koordinatzaile, eta urtebete geroago Albizuri. Orduan bizitako esperientziak kontatu dizkiote Maxixatzeni.

Biek diote lagunartean sortutako planteamendu bat izan zela, laguntzeko zuten irrikak sortua. Barru-barrutik ateratako nahia izan zen. «Jakin-minak bultzatuta hasi nintzen», azaldu du Sudupek. «Desberdina izateak sortzen zidan erakargarritasunak eraman ninduen Txolartera». Horri, parte hartzeko eta aukera berdintasuna bermatzeko lanketa garatu nahi izana gehitu dizkio Sudupek. Txolartek Azkoitian bertan zuen hasieran egoitza, azoka plazan. «Gaur egun odol emaleek duten egoitzaren ondoan genuen lokala, kostata lortutakoa», azaldu du Albizurik. Ondoren, Mankomunitateak Azpeitian lokal hobe eskaini zien, eta Azpeitira joan ziren, 1990. urtearen bueltan. «Egoitza handiagoa zen, sukaldea zuen, eta aukera hobeak zituelako lekualdatu ginen», gehitu du Albizurik.

Sasoi hartan, Txolarten talde bakarra zegoen, helduena, eta zapaturo elkartzen ziren, 16:00etatik 20:00etara bitartean. 25 bazkide inguru zeuden Txolarten, eta Sudupe eta Albizuri talde horretako begiraleak ziren. Abenduko zubian, Aste Santuan eta udan, esaterako, irteerak egiteko ohitura zuten. Urtebetetze ospakizunek, dantzek, mozzorro festek, Azkoitiko abesbatzarekin egiten zuten Gabon es-

keak eta txikiteoak ere arrakasta izaten zuten beste hamai-ka jardueraren artean. «Garrantzitsua iruditzen zitzaigun bertako kideek jendearekin harremana izatea. Normalizatorako urratsa zen, eta harrera oso ona izan genuen herri-tarren partetik», adierazi du Albizurik. «Kalean presentzia sortzen eta sendotzen genuen, ez baitzen ohikoa adimen urritasuna zuen pertsona bat kalean ikustea», azaldu du, bestalde, Sudupek.

Gizarteari eragiten dion gaia izanik, harremana garrantzitsua izan zen Txolarteko lanetan ere. Gurasoekin «bikain» konpontzen zirela azaldu dute, zuten harremana «konfiantzazkoa eta gertukoa» zela. Aitortu dutenez, «beldurra» behin baino gehiagotan nabaritu zieten gurasoei aurpegian. «Bazkideen aita-amei alde positiboak eta onurak erakusten saiatzen ginen; gero, euren seme-alabak poz-pezik eta ondo itzultzen zirela ikusita, konfiantza hori areagotu egin zen», azaldu dute bi boluntarioek. Gurasoei atsedena ematen zietela ere azpimarratu du Albizurik: «Dependentzia duten pertsonak zaintzea oso gogorra da, nahiz eta asko maite, eta gure lanarekin atsedena ematen genien gurasoei».

Boluntarioen lana, «ezinbestekoa»

«Boluntarioek beti egon behar dute, arlo denetan», hasi da Albizuri. «Guk, euskaldunok, beti izan dugu auzolanerako eta boluntario izateko joera. Hori mantendu egin behar dugu, hobeak egiten gaitu eta», arrazoitu du. Sudupek, berriz, boluntarioek ikuspegi altruistan oinarrituta egiten duten aportazioa goraipatu du: «Erronka inklusioan dago, gizartearen partaide aktibo direla eta bertan parte hartzeko gai direla erakustean». Halere, sentsibilizatzeko eta ikusgai egiteko lan handia dagoela azpimarratu du, eta begiraleek egiten duten lana «beharrezkoa» iruditzen zaio horretarako.

Hori horrela izanik, gaur egungo gazteei dei egin die lan horretan hasteko. «Gaztea izateak sormenaren eta irudimenaren gaitasuna dakar, gizarte inplikaziorako grina eta esperimintatzeko ausardia», gaineratu du Sudupe koordinatzaile ohiak. Uste du «gaitasun eta ezaugarri horiei bidea emateko era bat» dela boluntario izatea. Albizurik bizitzan aurrera egiteko irakasgaia dela adierazi du, «heldutasuna» ematen duela.

Taldetik irtetea, zaila

Suduprek 12 urte egin zituen Txolarten, eta Albizurik 11 urte; bada zer bait. Oroitzapen «ederrak» dauzkate gorde-ta, babesean. Albizurik bertan egindako lanak merezi zuela azaldu du, eta Sudupe ere pentsaera berekoa da: «Bertirako lagunak aurkitu nituen bertan, eta familien aldetik jasotako dena ere esker onekoa izan zen», adierazi du. Primeran konpontzen zirenik ezin izan dute ukatu. Bazter denetan sortzen diren arazo gutxi batzuk izan zituzten, eta, osasun arazoak zirela medio, estuasun batzuk ere izan zituzten, baina «esperientzia aberasgarria eta polita» izan zela esan dute.

Hamarkada batez baino gehiagoz begirale lanak egin ondoren, ordea, lekukoa beste batzuei ematea egokitu zitzaizen Albizuriri eta Suduperi, egoera aldatu egin baitzitzaizen bi azkoitiarrei. Sudupek azaldu du lehenik bere egoera: «Independizatu eta segituan, nire bizitzako beste etapa bati heldu nion. Asko kostatu zitzaidan uztea». Egoera horregatik izan ez balitz oraindik begirale jarraituko zukeela aitortu du. Albizurik, berriz, ikasketengatik utzi behar izan zuen Txolarte: «Gure herrietatik urrun ikasten hasi ginen, batzuk Euskal Herrian baina beste batzuk hemendik kanpo. Uzteko pausoa ematea ez zen erraza izan». Harrezkero, baina, taldea behin baino gehiagotan bisitatu dute. «Adibide ona utzi genien gure ondorengoei, aurrekoek guri utzi ziguten bezalaxe», esan du, amaitzeko. Lekukoa aurrera doa, pausoz pauso.





Ane Arrizabalaga Andreu (Azkoitia, 1994) eta Iraitz Otaño Mujika (Azkoitia, 1993) eskualdeko Txolartek gaur egun dituen 13 begiraleetako bi dira. Otañok eta Arrizabalagak hiru eta bi urte daramatzate, hurrenez hurren, adimen urritasuna duten pertsoneri asteburua alaitzeko lanean. Aisialdia eta bizi kalitatea eskutik doazela ulertuta, ahal duten neurrian horretan jarraitzeko asmoa azaldu dute. Astebururo jasotzen dutenaren lekuko izan da Maxixatzen.

440 bat kide daude eskualdeko Txolarten izena emanda. Otaño, 2014an taldearekin oporraldi bat egin ondoren, urte hartako urrian batu zen Txolartera begirale gisa, taldeko kideei laguntzeko; Arrizabalaga, berriz, hurrengo urteko udaberrian sartu zen. Txolartera joaten diren adimen urriko parte hartzaileen inklusioa azken helburutzat hartuta, «aisialdirako eskubidea bermatzen eta autonomia garatzen» laguntzen diete.

Herriko ezagun batzuk Txolarten ibiltzen zirela ikusi zuten, eta horrela izan zuten lehen aldiz proiektuaren berri. Boluntario lanak «konpromisoa» eskatzen duela uste dute, eta konpromiso horri heltzeko arrazoiak zein izan ziren azaldu dute: «Hasieran, ikasketak praktikara eraman nahi nituen, eta Txolarte horretarako aukera ona zela ikusi nuen. Helburua desberdina da gaur; taldearen parte sentitzen naiz, eta niretzat ere aisialdi momentu bat da», adierazi du Arrizabalagak. Unibertsitatean ikasitakoa bizitza errealerara ekartzen lagundu dio egiten duen lanak Arrizabalagari. Alor pertsonalari begiratuta, berriz, Txolarten parte hartzea «betegarria» dela uste du, «errealitatea ikusteko eta bizitzeko beste molde batzuk» ezagutu baititu.

Otañoren arrazoia bestelakoa da, baina barruan bizitakoak Ane bezainbeste ase du. «Txolarten hasi aurretik oporretan izan nintzen taldearekin, eta esperientzia aberasgarria izan zelako erabaki nuen taldean hastea», azaldu du. Berri ere boluntario izateak «asko» eman dio pertsonalki, eta bat dator Arrizabalagarekin: «Mundua ikusteko beste era batzuk ezagutzeko aukera izan dut. Gizarteak dituen aurreiritziak eta uste faltsuak deuseztatzeko ere balio izan

dit». Gaur, eskualdeko Txolarteko koordinatzaile lanak egiten ditu Otañok.

Parte hartzaileek eta haien familiek asko eskertzen dute boluntarioen lana. «Boluntarioen lanik gabe ezin izango lukete aisialdiaz gozatu parte hartzaileek», aitortu dute biek. Taldekideek asteburuetan erakusten duten «energia» azpimarratu dute, eta esan dute boluntarioentzat beti «hitz goxoak» izaten dituztela. Gaur egun bi Txolarte talde daude, gazteena eta helduena. Talde bakoitzean adin tarte desberdineko parte hartzaileak daude. Arrizabalaga eta Otaño helduen taldeko boluntarioak dira, eta 30 bat urte-tik hasi eta 60 urtera bitarteko parte hartzaileak dituzte elkarrekin. Haien iritziz, hori «aberasgarria» da taldearentzat. Gazteen taldean, bestalde, bederatzi parte hartzaile daude, eta zazpi boluntariok egiten dute begirale lana.

Aisialdiaz gozatzeko, askotariko ekintzak

Aisialdia pertsona ororen eskubidea den heinean, Txolarteren bitartez parte hartzaileek eskubide hori baliatzeko aukera dute. Txolartek adimen urritasuna duten pertsonak gizarteratzen egin duen «aurrerapausoa» nabarmendu dute biek ala biek. «Txolarteri esker, kalera ateratzen gara, eta gizartearen parte aktibo bihurtzen dira», diote. Zapaturo ekintzak egiteko elkartzen dira. Aste Santuan Donostiara joaten dira egun batzuk pasatzera, eta abuztuan parte hartzaileek erabakitako lekuren batera joaten dira hamar egun inguru taldean pasatzera. Ekintzak denetarikoa izaten dira; esaterako, hiriburueta edo kostaldera egun-pasak egitera joaten dira, eta afariak ere egiten

dituzte. «Uste dugu parte hartzaileek ekintza horietan pasatzen dutela ondoena; jende gehiena ekintza horietara etortzen da».

Taldearen aisialdia dinamizatzeko helburuarekin antolatzen dituzte ekintza guztiak. Parte hartzaileen nahien arabera jokatzeko dute, bai ekintzak erabakitzerakoan, bai irteerak antolatzerakoan. «Lehenengo, parte hartzaileekin hitz egiten dugu, eta, ondoren, beraiek eskatzen dutenaren arabera antolatzen gara». Nahi horiek aztertutakoan, talde osoarentzat egokiak diren ekintzak antolatzen dituzte, inor kanpoan gelditi ez dadin. «Taldeak hainbat tailer egitea, filmak ikustea eta paseatzera joatea aukeratzen du, besteak beste», esan dute bi begirale azkoitiarrek. «Haien autonomia eta askotariko gaitasunak lantzen saiatzen gara, edota hausnarketarako bidea zabaltzen». Gero, guztia zehaztu ondoren, taldeko koordinatzaileek kideen etxera bidaltzen dute programazioa». Ekintzak antolatzea ez da soilik taldeko kideei eragiten dien gaia. Begiraleek, behin egutegia finkatzen dutenean, libre dauden ala ez azaltzen dute, eta denen artean antolatzen dira egunak banatzeko. Giro «oso ona» dutela azpimarratu dute. «Partaide batzuk gu jaio aurretik elkartzen ziren; bitzta guztia daramate elkarrekin. Azken finean, kuadrilla bat dira, euren gorabeherekin». Aisialdia eta bizi kalitatea eskutik doaz, eta «ahal duten neurrian» lan horretan jarraituko dutela azaldu dute. Egiten duen lanagatik, aurtengo Gipuzkoako Boluntariorza Saria jasoko du Atzegik abenduan.



Gizartea, nahi dutenetik urrun

Gizarteak kolektibo horren inguruan duen erreparazioz ere hitz egin nahi izan dute. Ikusten dute gero eta jende gehiago dagoela aniztasun funtzionalaren gainean jabetuta, eta gizartea alde horretatik aldatzen ari dela iritzita daude. Horren inguruan aurreiritzi asko ditu eraikiak jendeak, eta, begirale azkoitiarren ustez, «askok beldurra izaten dute gerturatzeko». Esan dutenez, ordea, eurek lehen egunean bertan apurtu zituzten aurreiritzi horiek. «Aldaketa ikaragarria lortzea ez dago gure esku, baina gertuko ingurunean pixkanaka-pixkanaka lortzen ari gara, eta, horrela, gizarte osoan pausoz pauso jarraitzea da asmoa». Gizartean laguntzen ari diren begiraletzat dute beren burua Otañok eta Arrizabalagak, eta aurreiritzi horiei erantzuna emateko gaitasuna garatzen ari dira.

Gizartea ez dute gai honen inguruan sentsibilizatuta ikusten, aurreiritziz josita baizik, eta horrek eragin «itzela» daukala diote. «Gaur egun, berdintasunaren kontzeptuaren teoria oso zabalduta dago. Praktikara eramatea, ordea, jendeari zailagoa egiten zaio». Gizartearen «itzalpean» ikusten dute beren burua; diotenez, jendeak arraro begiratzen diete, baina, halere, gerturatzeko eta egunerokoa ezagutzeko gonbita egiten diete. Txolarteko ateak edonork zabalik ditu, beti.

EUSKO LABELA DUEN ABELGORRIA

HARAKIN MAISUAK

**BASQUE
LABEL
HARATEGIAK**

— %100 —

GURE BASERRITARREKIN
CON NUESTROS BASERRITARRAS




EUSKO LABEL PRODUKTUTAN
ESPEZIALIZATUTAKO TOKIA
ESTABLECIMIENTO ESPECIALIZADO
EN PRODUCTOS CON EUSKO LABEL

ZURE BASQUE LABEL HARATEGIA

AZKOITIA:

BELOKI HARATEGIA - Plaza Berri, 75





Juan Carlos Perez:

«Gauza bera egiten jarraitzeak ez nau erakartzen»

GALDETU AHALA ERANTZUN

Irakurtzea maite duen musikari eta konpositore peto-pettoa da Juan Carlos Perez Gomez (Mutriku, 1958). Ez ama ez aita ez ditu euskaldunak —galziarrak dira—, eta kalean ikasi zuen euskaraz. Zuzenbidea ikasi zuen Deustuko Unibertsitatean, eta, ondoren, pianoko ikasketak egin zituen Bilboko Kontserbatorioan zortzi urtez. Hamaika musika proiektutan ibilia da, baita produkzio artistikoetan ere; besteak beste, filmen eta telesailen soinu bandak egin izan ditu.

Itoiz izan da haren bizitzako proiektu garrantzitsuena, dudarik gabe. Taldeak beti euskaraz abesteko apustua egin zuen, eta 10 urtean —1978tik 1988ra— jendea gozaraztea lortu zuten. Orduetik beste bide batzuk jorratzen dabil, errepikatzea ez baitu atsegin.

► Olaia Juaristi Zabala

Elkarrizketa hau egin edo ez bi aldiz pentsatu duzu, gure haridurarako.

Kostatu egiten zait jendaurreko gauzak egitea. Lehen, Itoizen diskoak promozionatzeko-eta errazago egiten genituen elkarrizketak; orain, ordea, gauza pertsonalak kontatzea edo nire eguneroko erritmotik aparte dauden gauzak egitea kostatu egiten zait, eten bat izaten delako.

Indar Trabesekin eman zenuen lehen kontzertua, 1974. urtean. Nola oroitzen dituzu zure bizitza artistikoaren hasierako urteak?

Ondarroako Venecia aretoan eman genuen lehen kontzertu hura... oso berezia izan zen. Jendez gainezka zegoen aretoa. 16-17 urte genituen, institutuko giroan murgilduta geunden eta ikasturteko bidaiara joateko dirua biltzeko kontzertu bat emateko eskatu ziguten. Talde bat sortu berria genuen, Mutriku eta Ondarroako lagun musikari batzuk elkartuta. Garai hartan ez zen arrunta ezta erraza ere talde bat sortzea. Erronka bat zen guretzat. Gau hartan ez nuen lorik egin, urduritasunagatik eta emozioagatik. Hori bizitzan behin bakarrik gertatu zait.

Orduan gu erakartzen gintuen fenomenoak, rock progresiboa edo sinfonikoa delakoa, kanpotik zetorren.

Esaterako, Genesis, The Who eta Camel taldeek jotzen zuten musika zen gure eredia. Indar Trabesekin egin genuen hasierako musika hura izan zen ondoren Itoizen lehen diskoak musika. Konposizio berdinez osatuta daude. Denborarekin aldatzen joan ziren, baina mamia hori izan zen.

Itoizek hamar urteko ibilbidean zazpi disko kaleratu zituen; hari bat badute, baina soinua ez da guztietan bera.

10 urte oso intentsuak izan ziren. Askotan sinesten genuen egiten genuenarekin. Aukera ederra izan zen diskoak grabatzea, gure sormen nahi guztiak botatzen genituelako. Disko bakoitza istorio ezberdin bat da; bere pertsonalitatea du. Eta kanta bakoitza, mundu bat.

"MUSIKA SORTZEKO, EZ DA NAHIKOA MUSIKA JAKITEA; MUSIKAREKIN KOMUNIKATU EGIN BEHAR DA, ARTISTIKOIA IZAN BEHAR DU"

Bi garai bereizten dira: Itoizen lehen hiru diskoak rock progresibo-sinfonikoarekin lotuta daude; bigarren garaian, Itoiz ezagunago egiten hasi zen, estetika zuzenagoko kantak zirelako.

Pixkanaka ofizioa ikasi genuen; jendaurrean funtzionatzeko gakoak ikasi genituen. Eta orduan hasi zen Itoizen benetako arrakasta publikoaren aurrean. Oso talde ezaguna bihurtu ginen, batez ere *Marea gora* eta *Hegal egiten* abestiengatik, besteak beste. Orduko Euskal Rock Erradikal harekin zerbait partekatzen hasi ginen, baina gu ez geunden

mugimendu batean; gu rock talde bat ginen, eta geure musika egin nahi genuen, besterik gabe.

Itoizen diskorik onena zein izan zen?

Guretzat ezberdinak dira denak. Batzuk jendearengana gehiago iritsi dira besteak baino. Harritzen nau jende askori *Ezekiel* gustatzen zaiola eta, gainera, oso berea balitz bezala hartzen duela.

Besteak beste, Joseba Alcalde, Jose Mari Argoitia eta Bernardo Atxaga idazleekin lan egin genuen; haiek sortu zizkiguten letra batzuk. Baina hitza edo esanahia ez zen guretzat inportanteena, ez orduan eta ez orain, musika baizik. Musikaren lagungarri bat besterik ez zen letra. Lehen hiru diskoetako testuak nahiko surrealista ziren; ondo egokitzen zitzaizkion gure musikari.

Nolako harremana zenuten Euskal Rock Erradikalaren etiketarekin sailkatu ziren taldeekin eta garai hartako entzuleekin?

Normala, batzuk gure garaikoak zirelako. Musikariak ulertzen zuten zein zen gure estiloa, eta errespetatzen gintuzten. Aldiz, kalean beste irudi bat genuen, "beste garai batekoak" ginelako irudia [barrez]: talde handi bat, pixka bat bere munduan bizi zena...

Sortzaileak zer-nolako ekarpena egiten dio bere gizarteari?

Sortzaileak zintzoa izan behar du eta barruan duen zerbait hori atera behar du. Gero, gizarteari ailegatuko zaio edo ez. Alegia, artistak lan bat sortzerakoan ez du pentsatu behar obraren ondorioetan; edo bai, baina hori beste kontu bat da...

Hizkuntzak zenbateko pisua zeukan Itoizen egitasmo artistikoaren barruan?

Hausnarketa askorik egin gabe, gure musikari euskaraz kantatzea ondo etorriko zitzaioela pentsatu genuen. Eta ez ginen euskaraz abesten hasi euskaldunak ginelako; izan ere, geure artean ere erdaraz hitz egiten genuen askotan. Negozioa murriztu egiten dela uste zuten batzuek, baina guk garbi genuen euskaraz abestu behar genuela. Apustu bat zen. Gure oinarri sendoen artean zerbait garrantzitsua apurtzea izango zen gazteleraz kanta bat abestea.

Atzerriko taldeentzat pixka bat talde berezia ginen, euskaraz abesten genuelako bizi osoan ingelesez kantatu izan zen musika. Espainian ere gogoan dut rocka gazteleraz abesten hasi zirenean arraroa egiten zela.

Itoiz bukatu ostean, bakarkako ibilbideari eutsi zenion. Beste gisa bateko abestiak egiteko aukera eman al zizun horrek?

Bai. Estetika jakin bat zuen Itoizek, eta horregatik utzi genuen taldea, agortua zelako jada. Jarraitu izan bagenu, estilo ezberdinak probatzen hasiko ginen, eta gure asmoa Itoiz marka jakin batekin uztea zen. Itoiz utzi ondoren, nire helburua ez zen izan berriz jotzen hastea, baina azkenean horretan hasi nintzen, eta tarteka disko batzuk atera nituen. Baina, hori bai, edozein musika estilo erabateko askatasunaz jorratzeko aukera izan nuen. Jazz mundutik jo nuen batez ere, eta beste publiko bat neureganatzea lortu nuen.

Etorkizunean bide horrek jarraipenik izango al du?

Jendeak galdetzen dit noiz kantatuko dudan berriz: «Utzi gauza arraro horiek egiteari, eta hasi kantatzen berriror!». Agian animatuko naiz egunen batean, auskalo. Oraingo, taularen beharrik ez daukat. Eta ez da harrokeria bat. Errepikatzea ez zait gustatzen; gauza bera egiten jarraitzeak ez nau erakartzen.

Musikeneko zuzendari akademikoa ere izan zinen 2010ean. Nolako da akademiaren eta herri musikaren arteko harremana?

Oso gai zabala da hori. Asko pentsatzen dut horretaz. Bi mundu eta bi erregistro dira; bi jestu, esango nuke. Musika egiteko arauak daude, hizkuntza batek dituen bezalaxe. Ordea, musika arauak jakin gabe ere egin daiteke, hala edo hola, garai bateko trikitilariak belarriz egiten zutena, esate baterako. Hori da herri musika nire ustez: bat-batekotasuna. Akademian musikaren erreminta denak ikasten dira; herri musika, berriz, intuizioari jarraituz lortzen da.

Konpositore klasikoek herriko melodietan inspiratutako musika erabili izan dute euren obra sinfoniko handietan. Bi munduak bata besteari begira daude, baina zeharo ezberdinak dira. Musika sortzeko, ez da nahikoa musika jakitea; musikarekin komunikatu egin behar da, artistikoa izan behar du. Baina, horretaz gain, solfeoa jakitea edota musika aztertzea behar-beharrezkoa dela iruditzen zait.

Bi munduek bakoitzak berearekin jarraitzen du, eta gutxitan elkartzen dira. Eta elkartzeagatik elkartzea ez dut uste interesantea denik. Adibidez, orain dela gutxi Brahms-en musika "deskubritu" dut, orain arte ez bainion kasurik egiten; oso klasikoa baina bere horretan ederra, ondo eraikia. Ez nuke nahi hori moldatzea edo sinpleago bihurtzea. Zubiak ez zaizkit asko interesatzen.

Musika garaikidearen iturria agortu gabe al dago oraindik?

Bai, niretzat bai. Nire ustez, etorkizuna musika klasiko garaikidean dago, nahiz eta oso gauza marjinala izan eta oso jende gutxiri gustatzen zaion... momentuz. Ezagutzeak, gauza berriak egiteak, ikasteak... askatu egiten zaitu. Orkestrari beste soinua bat lortu nahian nabil, nirea. Obra bakoitzak bere forma eta arau propioak ditu, obra berarekin hasi eta bukatu egiten direnak. Ni horrek erakartzen nau. Bestalde, gauza berriak ezagutu beharra sentitu izan dut beti.

Kirmen Uribe idazlearekin opera bat prestatzen ari zara. Ezer aurreratu al dezakezu?

Saturrarán dela izen probisionala, hau da, Mutriku eta Ondarroa artean dagoen hondartza. Txikitari haitzetan ibiltzen ginen, eta libre sentitzeko lekua zen. Horregatik proposatu nion nik ideia hori, eta berehala ulertu zuen. Musikalki jantzen ari naiz orain libretoa. Lehen ez nion kasurik egiten operari, baina orain asko gustatzen zait: gauzak azaltzeko indarra dauka, eta antzerkiaren eta musikaren arteko lana da, oso espresiboa.

Beste diziplina batzuetako artistekin elkarlanean aritutakoa zara. Horrek zure sortzeko grina indartzeko balio izan al dizu?

"60-70EKO HAMARKADA HURA SEKULAKOA IZAN ZEN. ORDUTIK EZ DA SORTU HALAKO FENOMENORIK"

"ETORKIZUNA MUSIKA KLASIKO GARAIKIDEAN DAGO"

Dudarik gabe. Hori izaten da onena: kanpotik etortzen den informazioa zurean erabiltzea. Bernardo Atxaga eta Kirmen Uribe idazleak, Mikel Laboa abeslaria, Zumeta eta Gortazar margolariak... garai bat... giro artistiko batean murgilduta egon izan naiz. Horrek bidea irekitzen dizu. Haien pentsamenduak eta artea egiteko erak musikarekin konparatzen dituzu, eta hor derrigorrezko feedbacka dago. Oso aberatsa da horiekin lan egitea; asko ikasten da.

Gaur egungo musikan, literaturan, zineman... ba al dago harritzen zaituen proposamenik?

Nire ustez, ez dira arterako garai onenak; agian gehiegi esatea izango da, baina... Gu rocka egiten hasi ginenean, orduan zeuden taldeak oso aberatsak eta mamitsuak ziren. Hura rockaren garai klasikoa izan zen. Gainera, orduan elektrizitatea sartu berria zen musikan: gitarra elektrikoak, anplifikadoreak, bateria, baxua... Musika egiteko beste era bat sortu zen. Begietatik eta belarrietatik zer bait berria sartzen zitzaigun, soinu berri bat. Lehenengo pausoak izaten dira mamitsuenak; 60-70eko hamarkada hura sekulakoa izan zen. Filosofia ezberdin bat jaio zen, fenomeno berria, eta horrek indar handia izaten du. Orduetik ez da sortu halako fenomenorik.

Laja trikitilariaren disko bateko ekoizlea izan zinen. Herrian dugun ondarea nahikoa baloratzen al da?

Ondarea baloratu behar da, baina ez dakit zenbateraino. Agian ez da hainbeste baloratu izan; edo gehiegi, ez dakit. Niretzat oso esperientzia ona eta aberasgarria izan zen Laja ezagutzea; trikitilari hutsa baino gehiago, musikaria da. Eta haren musika ulertzeko modua ezagutzea

oso kuriozosa egin zitzaidan. Gaur egun, bere ikasleei belarriarekin eta bistarekin irakasten die oraindik, elkarri begira joaz trikitia.

Itoizek Azkoitian 1983. urtean eman zuten kontzertua. Nola gogoratzen duzu?

Urola aldera etortzen ginenean ez genuen berotasun berezirik sentitzen. Ez ziguten askotan deitzen ere. Bagenituen jarraitzaileak, bai, baina hemen ez ginen etxean bezala sentitzen, Iparraldean eta Bizkaian bezala, esaterako. Hala ere, gustura jotzen genuen, eta Azkoitikoa kontzertu ona izan zen.

Gaur egun zertan zabilta?

Denetarik egiten dut. Lan bat ardatz gisa izaten dut beti; orain, esaterako, opera idazten ari naiz. Tarteka sormen tailerrak ere egiten ditut: ikastoletan, institutuetan... Azkena Iparraldean egin nuen. Musika sormenari buruzko tailerra eman nien: *Itoiz protokoloa* izena jarri zioten. Lau bat musikari elkartu, eta hutsetik pieza bat sortzen hasten dira; denen artean soinua eta nortasuna duen pieza bat sortzea da helburua. Oso interesgarria da.

Zuzenbideak zer leku du zure bizitzan?

Gaur, ikasi nuenean baino gehiago erakartzen nau. Gainera, lotura ikusten diot nire musika arloarekin. Paraleloki bietan lan egingo nuke gustura, baina ez dakit jada berandu ez ote den izango [barrez]. Gaztetan *full time* musikari profesionalak izan nahi genuen. Orain, ordea, lana eta alde artistikoa bateratzea gustatuko litzaidake, Pessoa eta Charles Ives-en kasuen parera.



Euskara aldean, erabiltze lanean

HARTU PARTE DANOBATGROUPen EUSKARAREN EGUNEKO LEHIAKETAN!

Sartu lehiaketako estekan, ezagutu euskara arloko gure ekimenak eta irabazi **bi gaueko egonaldia bi lagunentzat**

<https://info.danobatgroup.com/euskara/lehiaketa-2017.html>

*Parte hartzeko azken eguna: 2017ko abenduak 11



DANOBATGROUPek lehiaketa antolatu du kooperatibak dituen herritar guztiei zuzenduta

Iazko ekimenari jarraituz aurten ere DANOBATGROUPek Euskararen Nazioarteko Egunaren harira kooperatibak dituen herrietara zabalduko lehiaketa jarri du martxan Euskara aldean, erabiltze lanean lempaean.

Webgunean klikatu eta kooperatibari buruzko galdera orokor batzuei erantzun ondoren DANOBATGROUPeko hiztegi teknikoan sartu eta hainbat hitzen ordainak aukeratu beharko dira, besteak beste.

DANOBATGROUPek konpromiso sendoa du gizartearekin eta gizartearekiko konpromiso sendo horretan kokatzen da euskararekiko konpromisoa ere. DANOBATGROUPek harreman sare zabala du eta bezeroekin sarri ingelesez baliatu behar izaten bada ere bertako langile, hornitzaile, bezero, ikastetxe, administrazio eta abarrekin euskara erabiltzeko konpromiso sendoa du.



Zebra bide arriskutsua Jausoron

Anbulatorio aurreko ibai ondoko aparkalekuetatik Burdinoleta pareko parkingera ez dago bide zuzenik. 10 bat metroko tarte bat dago, barandarekin. Pare horretan, zehazki, zebra bidea dago, eta oso arriskutsu dago. Nik behin baino gehiagotan ezustekoa hartu dut, bai oinez, bai kotxez, eta beti motel joanda, gainera. Baina, noski, besteek zer egingo duten ez dakizu, eta ez dago zure esku.

Beraz, ondo egongo litzateke gune horretan espaloia jartzea; alde batetik, segurtasunagatik eta, bestetik, ibai alboko bidean aparkatzen dutenek atzerago dagoen zebra bideraino joan behar izaten dutelako errepidea oinez ez gurutzatzeko. Bestela, beste aukera bat litzateke erdiko isletan ispilu bat jartzea, oinezkoek eta gidariek norbait ba al datorren ikus dezaten. **A.B.S**

Bidegorriaren gainean aparkatuta

Anaitasuna plazaren eta Urrategiko Andra Mariaren plazaren artean dagoen bidegorrian, aparkalekuan "sartzen" ez diren furgoneta eta kamioi txiki ugari ikusi ohi ditugu. Oinez, bizikletaz, patinez erabiltzeko gunea, berriro auto, kamioi, furgonetaz beteta. Hor bertan badago inori kalterik egin gabe horiek sartzeko moduko aparkaleku luzeagorik. **M.A**



AT Gure errepideak mantentzeko baliabide gehiago.

Hemen da, kamioientzat bakarrik sortutako lehenengo peaje sistema adimenduna.

Peaje sistema berriarekin, gipuzkoarrak ez diren kamioitariek ere gure errepideen mantenuan lagunduko dute, modu zuzenean, lehen aldiz. Sistema jasagarri honek, N1eko trafikoa arinduko du. Sistema honek kutsadura akustikoa % 25 murriztuko du, gelditu gabe pasatzeko aukera ere emanez.

GABONETAKO HISTERIA



IRITZIXE



NIK BAKARRIK
ETXIE GABONETAKO
DEKORAU BER AL DEUN
GALDETU DIZUT.

TRANSPOTTING
IKUSTEZUN BAKOITZIN
INSOPORTABLE JARTZE
ZEA E



YOKOKIROLAK
www.yokokirolak.com
Kale nagusia 90 - Azkoitia

Munduko
Supermarkatu ekologikoa

ONDO PASAU GABONAK!

kale Nagusia, 29
943083952
munduko@gmail.com

Jon Aranoa
Guillermo Torres
Maialen Gabiola

ONDO PASAU GABONAK

Azkoitiko
Albaitaritza
Klinika

943 08 77 61 · 639 04 73 37

Illepaintze-zerbitzua
Asteleheneretik ostiralera: 10:30-14:30
Ugarte, 4 · 20720 AZKOITIA (Gipuzkoa)
albaitaritza.azkoitia@outlook.com

Webak
Software
Ingeniaritza
Sistemak

Formakuntza
GNU/linux
OpenData
Ecommerce
APP

LibreOffice

elkarmedia()

943 85 08 74 · info@elkarmedia.com

AZKEN PLAZAK ! EZ GALDU AUKERA !

Tierra Santa. El viaje de tu vida
Primavera 2018



JERUSALÉN

Lurralde Santua. 2018ko udaberria

Autobuses Bilboko aireporturaino - Gida, bidai osoan zehar - 8 egun - 7 egun ibilaldiekin
Gau irteera bat ikus entzunezko ekitaldi batera - Ibilaldietako sarrerak
Bazkariak jatorrizko jatetxeetan - Bertako gida (gaztelaniaz)

(27/04 - 05/05) **1.765€ + tasak**



Crucero fluvial. Junio 2018

VOLGA

Ibai zeharkaldia

Autobuses Bilboko aireporturaino - Gida, bidai osoan zehar - 12 egun ibai zeharkaldian
MS Konstantin Fedin 4* sup edo antzeko itxasontzia - Pentsio osoko egonaldia
Ibilaldian aipatutako bisitak - Gida eta laguntzaileak ibilbidean zehar - Oinarrizako aseguruak
Mosku, Uglich, Yaroslavl, Goritsy, Kizhi (Onega lakua), Mandroga, San Petersburgo

(19/06 - 30/06) **2.484€ + tasak + bisatua**

Informazio gehiago

943 81 06 73



Halcon bidaiak
azpeitia



- ERREZETA -

BA AL DAKIZU?

Gabonetarako postrerik gozoena: polborroia

► Maite Zubizarreta Goenaga

Lehenago eta behin, irina txigortu egin behar da (labean 200 gradutan, 7 minutuz) eta ondoren bahetik pasatu.

Txerri gantza (epela baldin badago, hobe) azukreakin nahastu, eta nahi den esentzia bota (esaterako, kanela eta intxaur muskatua elkarrekin ondo etortzen dira).

Ondoren, irina gehitu eta, eskuekin osagai guztiak ondo nahastuz, masa egin.

Masa mehetu eta nahi den forma eman, eta gero labean sartu 10 minutuz 150 gradutan.

Ateratakoan hozten utzi eta, ondo hoztutakoan, nahi izanez gero, dekoratu txokolate beltz nahiz zurarekin, glas azukreakin, almendra txigortuarekin...

Azkenik, koloretako zetazko paperean bildu.

Osagaiak:

- 250 gramo txerri gantz
- 250 gramo glas azukre
- 500 gramo irin
- Esentzia (banilla, intxaur muskatua, kanela...); gustuaren arabera, aukeran



MARKA GUZTIETAKO AUTOAK KONPONTZEN DITUGU

GARAJE
AXIRI



OSKAR BERNAL GOMEZ

tailleraxiri@gmail.com



Fedea aitortzen

► Nagore Silvan Barriuso

Hamabost urte dira homosexualitatea sendatzen zuen apaizarekin topo egin nuela. Uf! Ezin ahaztu garai haietan Elizarekiko sentitu nuen urruntasuna. Txikitan gurasoek katekesira bidali, eta han zenbait galderari erantzunik ezin bilatu, dena bekatu. Ezin ulertu Elizaren hainbat jarrera.

Urteak aurrera, kantzeleko atea lehen aldiz pasatu eta eskaileretan gora, alabaren jaunartzea tokatzen zen, hiru urteko ibilbidea egiteko prest. Uf! Kezka handia, bertan entzungo nuen mezua apaiz haren ildotik joango zelako ikara.

Oraindik gogoratzen dut familiartean sortutako sorpresa, harridura, katekista bihurtu nintzela esan nuenean. Gaur egun ere, kuadrillakoak ere *flipatzen* ari dira.

Bilbon egun-pasa egiten. Bazkalordua italiar jatetxe batean egin dugu. Kafetxoaren ordua, konpainia ezin hobean, eta Elizaren gaia atera. Ezin ukatu berez zirikatzailea naizenez ni ere eztabaidan sartu naizela gogotsu. Elizaren ikuspegia, uf! Zeinen urrun bi ikuspegiak, bizitako esperientziek markaturikoak. Kafea amaitu da, eta erosketetan jarraitzeko indarberrituta gaude. Eguna bukatu, bi muxu, eta bakoitza bere etxeko goxotasunera bueltatu da. Goizean lanera, egunerokotasuna nagusitzen da, baina lagunekin hitz egindakoak gogoetarako parada ematen du.

Uf! Bat, bi, hiru eta gora! Aste Santuko pausoan eraman beharreko zama lagunek Elizari buruz duten iritzia edo ikuspegia bezalakoa da. Zama astuna, neketsua, bakarrik ezin eraman daitekeena. Bat, bi, hiru, gora!

Hamaika urteko ibilbidea, neu ere Eliza naizela jabetzeko. Homosexualitatea sendatuko zuen apaizaren edota emakumeak umeak egiteko eta gizona zerbitzatzeko gaudela esan zuenaren zama gainetik kendu edo altxatzeko moduan dago gure parrokia. Bai, aitortzen dut, kristaua

naiz eta ez naiz batere perfektua; bekataria naiz, eta bide-tik alde egiten dut, eta oraindik Eliza naiz hala ere. Jabetasun horrek askatasuna ematen dit, bakea, ez dut neure burua egunero justifikatu behar, ez azalpenik eman behar; naizen modukoa naiz, eta kantzeleko atetik sartzean etxean nago. Parte izateak parte hartzea dakar. Parte izateak denak zaku berean sartzea dakar. Parte izateak barruan, taldean, dauden batzuek esandakoengatik eta egindakoengatik denak epaituak izatea dakar. Parte izateak aldaketarako aukera ematen du. Horretarako, Eliza irekia behar da, eta hau da gure parrokia. Leku guztietatik jasoko dugu, ezker-eskubi, barrutik eta kanpotik, baina... bat, bi, hiru, gora altxatuko gara. Parrokia honek ezin du bere bihotza galdu, bere espiritua, belaunaldi berriei erantzuten jarraitu behar du. Ateak zabalik, aurreiritzi ugariei aurre egiteko prest, bat, bi, hiru, gora!

Eskailerak igotzen jarraitzea barne ibilbide bat da, askotan neketsua. Geldiuneek atzera begiratzuz igotakoa ikusten laguntzen dute, eta aurrera begiratzuz asko dugula ohartarazten. Bitartean bizitza aurrera doa, eta datozen danbatekoei aurre egin beharra tokatzen zaigu. Blog batean irakurri nuen ama batek Jainkoarengan sinesmen zipitzik ez zuela bere semea gaixo zegoelako. Uf! Bat, bi, hiru eta gora! Ama, ez dago errudunik; bizitzak harriak ipintzen ditu bidean, pisutsuak, eta guk jasoko ditugu. Bidea egunen batean amaituko da, noski, denoi amaituko zaigu, baina ez dago bidea bakardadean igaro beharrik, errudunen bila. Bidean edukiko gaituzu, zure bidelagun izango gara eta maitasunez beteko ditugu zure hutsuneak. Ama, gogoratu, hemen gaituzu, gertu, eskua emango dizugu, besarkatuko zaitugu, eta behar dituzun mimoak emango dizkizugu, eskaileretan gora hori besterik ez baitut topatu. Horrek dena borobiltzen du: MAITASUNA.

IRITZIXE

Astelehenetik ostiralera: 08:30-12:30 / 14:30-19:00

Larunbatetan itxita



SAN JOAN, AXIRI 13 · 20720 AZKOITIA (Gipuzkoa)

TEL. 943850411 · Fax 943857193



SOSTENIPE TALDE FEMINISTA

KOMUNITATIEN LEIXUE

Zer da bortxaketaren kultura edo *cultura de la violación* deitzen zaion hori? Gure gizartean eraso sexualak justifikatzeko eta toleratzeko dagoen joera kulturala, indarkeria maskulinoa normalizatzen duena. Biktima erruduntzat jotzen da, baina erasotzaileak babes soziala jasotzen du, eta haren ekintzak justifikatzen dira.

Joera kultural hau identifika dezakegu, esaterako: bortxatzailea babestea, eta ez bortxatua. Hau da, bortxaketa edo sexu eraso bat salatu duenari ez zaionean sinesten, edo jantzita zeramanari buruzko aipamenak egiten direnean, edo esaten denean atentzio beharra zuela, probokatzen ari zela, berak nahi izan zuela gertatu zitzaiona... Baita eraso defendatu ez arren salaketa faltsuen inguruko aipamenekin erantzutea ere. Bortxatua izan dena errudun sentiaraztea eta bere egoera salatzeko gai ez izatea dakar horrek.

Ikuspegi hori entzun ohi diren esaldi askoren atzean dago: "neska hori probokatzen zebilen", "berak nahi izan du", "neska hori ez da fidatzekoa, eta gezurra izango da", "neska hori mutil askorekin ibiltzen da", "neska horrek bortxatu dutela esan du, baina sarketa egon da?", "neska hori mutil horrekin bere borondatez joan da, eta, beraz, ez da posible bortxaketa izatea!", "neska hori mutil horren atzetik zebilen, eta, beraz..." "Neska hori, neska hori..." Eta mutila zer?

Mito faltsuek gure pentsaeran duten eragina: bortxaketen %80an, bortxatzailea inguru hurbileko norbait izan ohi da, hau da, biktimak ezagutzen duen norbait. Beraz,

bortxatzailea normalean ez da gaez kaletik zoazela eraso egiten dizun pertsona ezezagun bat, ez da muntro ezezagun eta identifikagarri bat, baizik eta gizarte patriarkal batean jaio den eta dominazioaz nahiz botere harremanez baliatzen den norbait, pertsona "normala" itxura batean. Datu ofizialen arabera, salaketa faltsuak eta frogatu ezin izan diren salaketak %0,014 baino ez dira.

Hain normalizatuta daude sexuarekin erlazionaturiko dominazio jarrera maskulinoak eta sumisiorako joera femeninoak, non posible den bortxatzaileak berak ere ez ikustea egin duena bortxaketa moduan, edota biktima ez izatea gertatu zaionari izena jartzeko gai. Hori gertatzen bada, sexu gehiegikeriak normalizatutako gizarte batean bizi garelako da!

Gizartearen zati handi batentzat, mugak ez daude bate-re argi: non dago eraso sexual kontsideratzearen muga? Bada, muga EZETZ esaten den puntuan dago, edozein delarik ere puntu hori.

Baina ezetza ignoratzea normalizatuta dago. Ezetz esan eta jarraitzea normala al da? Ezetz esan eta insistitzea, xantaia emozionala egitea... Kondoia jartzeko eskatu eta erresistentzia jartzea normala al da? Etxerako bidean bakarrik goazela gizon ezezagun eta atzerritar baten eraso egiten ez digun bitartean dena normala al da?

Albistegietan ikusten ditugun bortxaketa eta eraso kasuak, urrun sentitzen ditugunak, gaitzestea erraza da. Gure inguruan gertatzen direnean zailtzen da kontua. Zaildu egiten da zure gaitzespina argi eta ozen adieraztea, zaildu hainbat jarrera onartezin identifikatzea. Zaila da gure inguruan bortxaketa eta erasoak gertatzen direla onartzea, baina jendarte matxista hau aldatu nahi badugu, eraso sexistak amaitu nahi baditugu, etxetik hasi behar dugu. Pertsonala dena politikoa da, eta hau iraultza bat da!

floreaga
SALESTAR IKASTETXEA

HEZIKETA OSOA HELBURU
0 URTETIK 16 URTERA ARTEKO HEZKUNTZA PROIEKTUA

HAUR ESKOLAN KUOTAK MURRIZTU DITUGU!!!

ONDO PASAU GABONAKI!

Kalitatezko irakaskuntza
Heziketa osoa: jakintza eta giza alderdia
Kristau heziketa
Euskal kultura
Jangela zerbitzua
Haurtzaindegia
Giro jatorra

Teknologia berriak (arbel digitala gela guztietan)
Ingelesa 3 urtetik aurrera
Agenda 21

salestarrak
Floreaga ikastetxea

Ke
Kristau-erakunde

Euskadi
2009

Izarraitz z/g AZKOITIA
Tel. 943 85 30 43
943 85 72 56
Faxa 943 85 70 21
www.floreaga.eus
floreaga@floreaga.eus

zur

• PLATER KONBINATUAK
• OGITARTEKOAK
• ENSALADAK
• RAZIOAK
• GARAGARDO ETA ARDO ESKAINTZA ZABALA

• TERRAZA HAUNDIA
• ZUZENENKO EMANALDIK

KALE NAGUSIA, 68
AZKOITIA
943851275

• ARTISAU PIZZAK
• PINTXOAK
• RAZIOAK
• OGITARTEKOAK
• ARDO ESKAINTZA ZABALA
• SOINU-EKIPO PAREGABEA
• LARUNBATETAN 06:00 ARTE IREKITA

LATZ
— TABERNA —
KALE NAGUSIA, 55
943851319
AZKOITIA



01



02



03



04

01- Amaia Bidezabalek jaso du Gazteak eta Garapena taldeak antolatu duen zozketako saria.

02- XV. Kudeaketa Topaketak egin dituzte, Iraurgi Berritzenek antolatuta.

03- Udalak eta Aldundiak lankidetzara hitzarmen bat sinatu dute Elkarguneko hainbat hobekuntza finantzatzeko.

04- Bizkargi Musika eta Dantza Eskolako ikasleek Santa Zeziliaren omenezko jaialdia egin zuten Elkargunean.

05- Udal ordezkariak eta herritarrek elkarretaratzea egin zuten Memoriaren Egunean.

06- Azaroaren 11n, San Martin egunean, ehunka herritar igo ziren San Martin ermitaraino kanpaia jotzeko ilusioarekin.

07- Sendiaren Egunarekin amaitu zen San Jose Egoitzako Adinduen Astea.

08- Danbor hotsez iragarri zuten ehunka herritarrek San Andres jaien etorrera.

09- XIII. Herri Lasterketa jokatu zen herrian. 10 kilometroko ibilbidea egin behar izan zuten lasterkariak.



05

HILABETIN BEGIXETATIK



06



07

Elkarrizketak, argazki galeriak, albistekak eta askoz gehiago maxizatzen.eus atarian.




08



09

HITZ GEZIDUNAK

	Jentil	▼	Aratza	▼	Belar pila	▼	Mamitua, gauzatu
	Zoritsarrez		Irfandako I-tasoko irla		Laosko		
	◆ Deitura	▶					
	Kenketaren ikur izena						
Mugaldelo		Kanboko					
◆ Izena		Erakusgarriak					
				Islandia	▶		Kontsonantea
				Gizon izena			Lehengo Thailandia
Ganora handiko	▶						
Umore kolpe							
			Bokal errepikatua	▶	Gipuzkoako herria	▶	
			Pisua		Letoniako hiriburua		
Kiribildua	▶						Iratzea, garoa
Oinazea							
			51	▶	Musika nota	▶	▼
			Zilarra		Lumaren erdian		
Emakume dotorea	▶				Gaern hauek	▶	Kontsonantea
Hamar gramo					Kontsonantea		Bokal biribila


◆ Idazle azkoitiarra

EZETZ ASMAU!

GOITIBEHERA

Goiti eta beheiti letra bat gutxiago edo gehiago du asmatu beharreko hitzak.

[1] Bide bat erabiltzeagatik ordaintzen den kopuru. [2] Ipar Europako lurraldea. [3] Iberiar penintsula. [4] Gure herriko dorre bat. [5] Ugaztun karraskari. [6] Gaixo. [7] Alde!, ospa! [8] Gazte abertzaleen erakunde. [9] Animalia adarduna. [10] Bizkaiko udalerrria, Txorierrin. [11] Igande edo domeka guztietan.




HITZ GURUTZATUAK

Ezker-eskuin

1. Laidogarri. 2. Gure herriko musika eta dantza eskola. Bokala. 3. Gora joan. Ipar Euskal Herrian, gonak. 4. Aintzira. Ebaki sakon. 5. Bokala. Txukun. Ez eme. 6. Gaurko gazteen gustuko egonlekua. Igarobide. 7. Bostehun eta bat, zenbaki erromatarren arabera. Seniparte, norbaiti ondaretik dago-kion parte. 8. Zangoaren atal. Su-armen jartigaia. 9. Bokala. Zilarraren ikurra. Haur hizkeran, haur. 10. Ipar Euskal Herrian eta Nafarroan, garesti. Beharra, egitekoa.

Goitik behera

1. Oinezko txangoak. 2. Letoniako hiriburua. Besteak beste, mendi telebistaduna da hau. Bokala. 3. Merkatuak. Jatorria adierazteko atzizkia. 4. Iparretarrak talde ohiaren siglak. Upelategi. 5. Mendebaldean, naiz. Lantzen den lur zati mugatu. Bokal biribila. 6. Dohainak. Nitrogenoa balio du. 7. Beharbada, apika, akaso. Trebe, iaio. 8. Errepikatuz, Sanferminetako martxa. Musulmanen erlijio-gidari magnetikoa. 9. Kontsonantea. Lore ikusgarri, julufrai. 10. Kasik. Labore hautsa.



HITZ GURUTZATUAK

ERANTZUNAK

A	N	A	L		O	I	R	A	K
	I	N	I	N		G	A		A
A	L	A	B		R	E	T	Z	I
N	E	M	A	K	O	T			D
I	B	I		A	L	A	K	O	L
A	R		N	A	P	A			A
I	R	U	A	Z		U	K	A	L
	K	A	I	A	Z		O	G	I
A		G	I	R	A	K	Z	I	B
I	R	R	A	R	G	A	I	N	A

GOITIBEHERA

O	R	E	D	N	A	G	I
O	I	D	A	N	E	R	
A	I	N	E	R	O		
I	A	R	N	E			
E	R	I					
I	B	R	E				
E	B	R	I				
I	B	E	R	I			
A	R	I	B	E			
I	A	R	I	B	E		
S	R	I	B	E	R	I	A
I	A	R	I	B	E	S	A

HITZ GEZIDUNAK

A	O	M	A	R	G	A	K	E	D
R		U	G	A	M	A	D		
I		M	L	A	N	A	I	M	
A		A	A	A	G	A	K	I	
U		T	A	R	O	A	N	G	
T		S	I	N	E	L	U	J	
R		O	B	A	K		M		
E		A	R	A	G				
Z		L	A	M	A	T			
M		G		P					



GAIA: Justizia?
Doinua: Trumoa ortzi beltzean hoska
 ▶ Eneritz Artetxe Eizagirre

Barra ertzeko bi begiratu
 bihurtu dira betiko datu
 eta jolasa jolas betiko
 nahiz geroago ukatu (bis)
 hankartean zakilak sartu,
 miazkatzera behartu,
 ahoa ondo tapatu,
 halere, lasai, une horretan
 bera ez baitzen kejavu.

"Ez da froga bat, da iritzia
 dena gezurra ta malizia,
 nolatan egin ote dezake
 hain normal bere bizia?" (bis)
 Alperrik dira grabaketak ta
 alperrik da polizia,
 ez al da denon krisia
 eskubideak bortxatzeko gai
 baldin bada justizia?

BERTSOA PAPEREAN

ONDO PASAU GABONAK!

**FERRETERIA
 ZERBER
 BURDINDECIA**

Pertsiana hondatu al zaizu?

Plantxari kablea aldatzea nahi al duzuz?

Sarraila berritu nahi al duzuz?



**ZERBERREN
 "ZER BER eta huraxe"**

Nagusia, 39
 20720 AZKOITIA
 638 353 125
www.ferreteriazerber.com

Manu Larranaga Andreu
 Terapia zentrua
 Kiromasajea - Kirol masajea
 Zinta neuromuskularrak
 Masaje erlaxagarria - Sintergetika
 Iraurgi Kalea, 4 behea -
 Tel. 685 786 179

**BARKITEKTURA
 DISEINUA** burruntzi
www.burruntzierreformak.com
 943 08 34 87
 ibaiondo 9, behea - AZKOITIA


MARGOTU



Zein da Pelloziren itzal zuzena?

DOMINO ZATIA

Bete itzazu fibretako espazio zuriak, domino zati hau zuzena izan dadin.




opari Festa

Ordena itzazu opari Kava hauek handitik bakira. Handienari 1 zenbakia eman, hurrengoari 2... Txikienari 8 zenbakia jarri.



MAXIXATZEN TXIKI



Pertsonak alde batera utzita, zenbat animalia ikusten dituzu irudi honetan?

Kiroldegian

Iburak ibura, zati hauek zati hauek ez dagozkie Kiroldegiko irudian. Zeintzuk dira?



Hartz iburako bi panpin daude bertan. Ikusten al dituzu? Eta pinginoak?



SUDOKU

Ipini sudoku bakoitzeko letrak dagokien tokian. Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta lau laukiko area bakoitzeko.

B			I
L		B	
	A		



ZAPI ala AZPI?

A	P		
		A	
			I
		Z	



ZOPA ala POZA?

A			Z
		P	
	Z		
O			



BLAI ala BILA?

ELURRA MENDIAN

Zenbat animalia ikusten dituzu?






haurren txokoa



IZEIA

- Erreparatu Gabonetako zuhaitz honen apaingarriei. Bola guztiak dute pareta, salbu eta batek. Zein da?
- Zein ederrak diren elurrezko panpinak. Zenbat ikusten dituzu? Eta zenbat Olentze o?

Soluzioak



Parentik ez duen bola: goitik behera bi marra urdin argi dituen bola zuria.
Elurrezko panpinak: 6 / Olentze o: 1



IZURRITEAK, GAIXOTASUNETIK HARATAGO

► Kepa Alberdi Egaña

HARA!

Azkoitiko herriak pasarte gogorrak pairatu izan ditu bere historian, eta horietako goibelenetakoak hainbat izurritek eragindakoak izan dira. Gure herriak jasandako izurrite baten baino gehiagoren berri dugu, eta horien artean ezagunenak XVI, XVII eta XIX. mendeetakoak dira.

Nahiz eta 1599koa izan zen epidemiarik krudel eta eraginkorrena, ezin dugu alde batera utzi 1820koa. Bigarren hura baserrietan zabaldu zen; antza denez, kaleko biztanleek, horren berri jakitean, gaixoak herritik ateratzeko neurria hartu zuten, eta, zein baserritan kutsatu ziren, berriro ere hara eramán zituzten. Izurrite haren gordintasunaz ohartarazteko, Aranaga baserrian gertatutakoa aipa dezakegu: han, etxeko nagusia izan ezik, beste guztiak gaixotu ziren. Larria izan zen 1855ean zabaldu zen kolera morboaren izurritea ere: gure herrian, uztailaren 27tik urriaren 21era bitartean eguneko 20 herritar egon ziren gaixorik batez beste, eta, horren eraginez, eguneko lau hildako ere izan ziren, beste askoren artean Valentin de Olano politikari ospetsuaren ama.

Baina, aipatu bezala, 1599ko izurriteak eragin zuen gure herriak inoiz ezagutu dituen pasarterik gogorrenetakoa: arratoi eta arkakusoen bitartez hedatutako gaixotasun kutsakorrek astindu eta larriagotu egin zuen lehendik egoera jasangaitza zuten herritarren bizimodua. Bizi baldintza ezegonkorrak eta garai hartako garbitasunik ezak oraindik eta gehiago erraztu zuten gaixotasuna zabaltzea, eta aldi hartako bizi itxaropena oraindik eta gehiago murriztu. Ez hori bakarrik: gaixotu zirenen artean gutxik iraun zuten bizirik zazpi egun baino gehiago, eta guztiek ere min eta oinaze ikaragarriak pairatu ondoren.

Izurritea herri baten sartzan zenean, ondoko herriek beren neurriak hartzen zituzten, kanpoko jendearekiko herria guztiz isolatuz. Horrela gertatu zen 1599ko zorigaitzoko

izurrite denboran, berehala zabaldu baitzen gaixotasun madarikatuak Oñatiko herria gogor jo zuela zioen berria. Gerora jakin zen herri horretako biztanleen laurdenak hil zirela izurrite haren eraginagatik. Azkoitian, gaixotasun hori bertan zabaltzen ari zela eta, entzute handikoak izan ziren Errebaleko etxeak, gaixo asko agertu baitzen haietan, eta zer esanik ez Macaloeta etxea, denbora motzean hango bizilagun asko hil baitziren. Egun gutxian, 15 edo 16 azkoitiar hil ziren gaixotasun haren ondorioz, eta agintariak berehala hartu zituzten jakineko neurriak. Besteak beste, kanpotik zetorren jende susmagarria ez herriratzeko, sarreteran txandakako guardiak ipini zituzten, eta zorrotz be-tearazi zuten herriko etxe edo baserrietan kanpoko inor ez hartzeko ordena ere. Horrela, izurritea bera nahikoa ez, eta herriaren isolamenduak oraindik eta gehiago areagotu zuen herritarren sufrimena. Horrek ondorio gogorrak zekartzan; izan ere, lehendik karitateari esker miserian bizi ziren herritarren artean janaria falta zen, eta, kasu askotan, goseak berak izurriteak baino zorigaitz gehiago eragin zuen.

KALTETUENAK, BEHARTSUAK

Azkoitiko jende xumeak izurritea oso modu latz eta ankerrean bizi izan zuen, eta familia aberats eta boteretsuak ere ez ziren libratu izurritearen atzaparretatik. Dena den, orduan ere, gizarte klaseen arteko desberdintasuna nabaria zen, eta bertako familia boteretsu bat baino gehiago atera zen herritik, gaixotasunaz kutsatu gabeko herri edo baserriren batera joateko. Herriko behartsuen egoera oso beldakoa izan zen, gosetearen eta errukirik ez zuen gaitzaren menpe inolako babesik gabe geratu baitziren. Baina gauzak oraindik eta gehiago okertu ziren kutsatutako gaixoak zeuden etxeetan: haiek zaintze hutsa edo haiei jaten ematea bera ausardia handiko ekintza bihurtu zen, eta gaixoarekin kontaktua zuten guztiak isolamendura kondentzen zituzten beste herritarrek. Azken batean, familiako kide guz-

tiak etxe barruan sartu, eta zaintzailea ipintzen zitzairen; sarrera-irteerak guztiz debekatzen zitzaizkien, eta gaixo bakarrak familia osoa konfinamendura behartzen zuen, badaezpada, nahiz eta kutsatuta ez egon. Horren ondorioz, komunitatetik bakandurik, eta gosea eta kutsatzeko arriskua zirela tarteko, haiek ere heriotzaren atarian geratzen ziren.

Batzuek koarentena etxean giltzapetuta betetzen zuten, beste batzuk aurrez izendatutako ermita edo baserrietan sartzen zituzten, eta zorte hobea zutenek, berriz, orduko ospitale xumeetan igarotzen zuten gaixoaldia. Hain zuzen ere, gure herrian, kasurik gehienetan izurriteek eragindako estualdien ondoren eratu edo apaindu dira gaixoentzako erietxeak. Horrela, 1599ko urtarrilean, Larramendi baserrietako pertsona batzuk gaixo zeudela jakin ondoren, eta haietako batzuk handik egun batzuetara hil zirela ikusirik, Antiguako Andra Mariaren eliza egokitu zuten izurritearekin kutsatutako herritarrek artatzeko. Diru gutxi zen udaleko kutxan, eta, Errukietzeko kutxatik mila erreal hartu ondoren, Pedro Iriarte zirujaua aukeratu zuten gaixoen zaintzaz arduratzeko. Askoz geroago, 1873an, San Juango bainuetxea apaindu zuten sarna zuten gaixoentzako ospitale gisa erabiltzeko. 1881ean, berriz, San Martingo ermitari atxikita dagoen eraikuntza prestatu zuten herritarrentzako erietxe moduan. Handik lau urtera, San Martingo ospitalea ondo egokitzearekin batera, agintariak beste etxe bat hartzea erabaki zuten, han gaixoen senideak koarentenan egon zitezen kutsaturik zeuden edo ez jakin bitartean. Bide batez, andariak edo kamilerok ere izendatu zituzten, eta, bitxia benetan, haiei sei pezetarekin, txarro erdika ardorekin eta laurden bat pattarrekin ordaintzen zitzairen eguneko lana.

Izurriteak ez zuen errukirik pobreekin, eta are gutxiago emakumeak baziren. Emakumeetako asko alargunak ziren, eta beste asko, berriz, gizartearen aldetik batere babesik ez zuten ezkongabeak. Egoera horretan, eta izurriteak gogor eraso egiten zuenean, haietariko asko izurridunak zaintzera, haien arropak garbitzera, hilak janztera eta horrelako beste lan arriskutsuak betetzera derrigortzen zituzten, eta, horren ondorioz, sarritan kutsatu eta galbidean erortzen ziren. Garai hartako emakumea baztertuta eta miseriarik handienera kondenatuta zegoen, alde batetik inolako nortasun juridikorik gabe gizonaren mende zegoelako, eta bestaldekik legeak, ongizate ekonomikoa zein Eliza kontra zituelako.

ERLIJIOA, OINAZEAREN ARINGARRI

Denboran atzera eginda, gure arbasoen bizitza zaila eta zoritxarrekoa izanik, eta Azkoitiko bizilagun gehienek gorriak pasatu arren, hori guztia gauza natural moduan eta Jainkoaren nahiaren eragina balitz bezala onartzen zen. Horrela, erlijio sinesmenak indar handia zuenez, gabezia



eta gaitz guztiekin batera, izurritea bera ere Jainkoak ezarritako bekatu ordainaren zigor gisa bereganatzen zuen gizarteak. Kutsaduraren izaera irrazionalaren aurrean, erlijioaren babesa eta kontsolamendu espiritualak ziren herritarrentzat beren atsekabearen aringarri. Hortik zetozen, izurritea zenean, Jainkoaren babesa eskuratzeko promesak eta hitzmateak, eta herrian ohikoa izaten zen Jaungoikoaren miseriak eskatzea. Horrela, Azkoitiko agintariak erreguak eta otoitzak antolatzen zituzten: behin baino gehiagotan, bederatziumenarekin batera Roke donearen eta Errukietzeko Bakardadeko Andra Mariaren irudiak parrokiara eramane zituzten, ondoren Santa Klara monasteriora prozesioa eginez.

Izurritearen ondorioz hiltzeak bazekarkien herritarrei beste buruhauste bat ere; izan ere, hala gertatuz gero, leku sakratuan ez lurperatzeko zorian zeuden, eta hori gogorra egiten zitzairen heriotzaren atarian zeudenei. Horixe gertatu zitzaion, besteak beste, Azkoitiko Umansoro etxeko Cristobal jaunaren neskame bati: gaixorik egon eta hil ondoren ez zuten leku sakratuan lurperatu, Tomás de Argarain apaizak azken sakramentuak eman bazizkion ere. Neskame harekin harremana izan zuten beste herritar batzuk ere haren urrats berberak egiteko zorian geratu ziren, izurritearekin kutsatutako Olariagako etxean sartu baitzituzten, badaezpada ere, beste herritarrengandik urrunduz.

Giro hartan, herritarrek beldur ziren. Elizak zioenez, izurritea zela-eta ezinbestekoa zen hil baino lehenago Jainkoari kontuak ematea, bekatuan hilez gero infernuko su etengabearen mehatxuan baitzeuden. Modu horretan, eta Elizaren eragin zuzenaz, herritarrek testamentua egiteko beharra ikusten zuten; horrela, oinordekoei zer ondasun uzten zizkieten erabakitzearekin batera, Elizari mezak ateratzeko zenbat diru eta aparte zer ondare uzten zizkieten adierazten zuten. Elizak, horren truke, betiko salbamena erraztea eta purgatorioan bekatuak barkatzeko denbora arintzea eskaintzen zuen. Hori horrela, ezagunak dira zenbait herritar aberatsek Jainkoaren aurrean merituak irabazteko asmoarekin egindako testamentuak. Horien artean, Joan Ramus de Insausti eta haren emazte López Pillo aipa ditzakegu: herriko parrokiaren lurperatzeko eskaria egitearekin batera, Insausti etxea eta errotak bietatik bizirik geratzen zenari pasatzeko agindua eman zuten, eta beste ondasun guztiak erruki ekintzertara bideratu. Pedro de Zuazola komendadorearen alarguna zen Magdalena de Oñaz y Loiolak eta beste herritar aberats batzuek ere antzeko asmoekin idatzi zuten beren testamentua.

Ondorio gisa, esan dezakegu gure arbasoak nahitaez kalamidade latzak pasatutakoak direla eta errukigarria izatearekin batera miresgarria eta goresgarria dela izurrite eta bestelako atsekabeei aurre egiteko izan zuten ahalmena.

FUENTE DE LA FORTUNA, LOTERIA DENDA:

«Saria gure dendan
irteteko zain-zain gaude;
ja tokatzen da!»



Helena Quintela Bereziartua (Donostia, 1965), 13 urte loteria saltzen, Ana Garmendia Plazaola (Azkoitia, 1955), 25 bat urte loteria saltzen, eta Mari Alfonso Illarramendi (Azkoitia, 1972), 3 urte loteria saltzen.

► Olaia Juaristi Zabala

Zein da Gabonetarako gehien eskatzen den zenbakia?

Bosta, oro har asko irten delako zenbaki hori.

Zenbaki jakin bat eskatzen al du jendeak?

Bai, norbere jaiotza data eskatzen dute askok.

Superstiziosorik izaten al da?

Bai... Izango ez da, ba! 13 bukaera asko gustatzen zaie. Dendan Gabonetako zuhaitza jartzen dugu, eta bolen orde zurreko urteko zozketako dezimoak zintzilikatzen ditugu. Askok hor ikusten dituzten zenbakiak eskatzen dituzte.

Zenbaki guztiak izaten al dituzue?

Asko, baina denak ez. Gaur egun makinatik zenbaki asko eska daitezke, baina denak ez. Zenbaki batzuk administrazio batzuetara lotuta egoten dira. Guk bi edo hiru zenbaki ditugu, betidanik hemengoak izan direnak. Beste inon ez daude, eta Espainian asko eskatzen dizkigute. Dirua sartzen digute, eta guk loteriak bidaltzen dizkiegu.

Ilara luzeak izaten dira hemen Gabonetan.

Bai, plazarainoak. Erosteke ez horrenbeste, baina kobratzeko... orduan bai. Askok lehenago Interneten egiaztatzen dute zenbakia, baina guk betiere ez botatzeko eta hona ekartzeko esaten diegu, badaezpada.

Haurren loteria banatu zenuten 1995eko Gabonetan.

Bai, 341 milioi. Ana Garmendia lanean zebilen, Maria Lurdes Quintela zenarekin batera. Hura zen orduan administrazio nagusia, Helena Quintelaren izeba, lehen Jakin liburua denda zuen Nikolasa Alkortarekin batera. Eta 1982an loteria denda zabaldu zuen.

Nola jaso zenuten albistea?

Makina izorratua genuen, eta hura konpontzen ari zen langilea hemen, konexioa galdua genuelako. Orduan, delegaziotik deitu ziguten saria jakinarazteko, eta xanpainarekin ospatu genuen. Arratsaldean, ordea, denda itxi genuen beti bezala. Egunkarian jende asko etorri zela jarri zuten, baina ez zen horrela izan.

Badaezpada ez ziren etorriko tokatu zitzaizkien...

Bat bai, eta sari handiena zuena, gainera. «Joan zaitez derrepente bankura», esan genion. 125 milioi tokatu zitzaizkion; besteei baino 100 milioi gehiago gainera, sari berezia tokatu zitzaizolako. Hark sari berezi hori berari tokatu al zitzaion ziurtatu nahi zuen.

Gustatuko al litzazueke berriz zuenean irtetea sariren bat?

Nola ez, ba... Zain-zain gaude. Ja tokatzen da!

Zuek ere jokatzen al duzue?

Bai, bai. Zenbaki berezi bat dugu Azkoitian: 25.104. Denek hori erosi nahi izaten dute. Espainian ere jende askok eskatzen digu zenbaki hori; ez dakigu zergatik. Geuk ere hartu dugu badaezpada. Berez, Etxeza tabernakoa da; han ere asko saltzen da. Haien guztiak salduta dauzkate dagoeneko, eta guk ere ez daukagu.

Zein saltzen da gehiago, Haurren loteria ala Gabonetakoa?

Gabonetakoa askoz gehiago, sari hobea delako eta tradizio handiagokoa delako.

Batez beste, zenbat erosten dute zuen bezeroek?

Alde handia dago batetik bestera. Askok iloba denentzako erosten dituzte, Gabonetako opari gisa. Zortzi bat loteria erosten dituzte batez beste. Beste batzuek, bukaera denak edukitzeko, 9 loteria erosten dituzte, Otik 9ra.

Zein adinetako jendea etorzen da batik bat loteria erosterat?

Adinekoa gehiago oro har loteria erosterat. Primitiva-eta gazteek gehiago erosten dute, batez ere zuk nahi duzun prezioa joka dezakezulako.

Anekdotarik?

Bai, lapurretak. Behin gezurretako pistola batekin sartu ziren, eta lepoa estutu ere egin zioten bertako langile bati. Azkenean, ezer harrapatu gabe joan ziren.

Beste behin ijito batzuk ere etorri zitzaizkigun, oso elegante jantzita, bat ijitoen nagusia zela esanez. 00077 zenbakia eskatu zuten; Otzarreta harategian saltzen zuten, eta guk haren zati bat genuen. Saldu egin genion, eta ondoren azkoitiarren artean eta inguruko ijitoen artean zabaldu zen zenbaki horrek irten behar zuela, eta ondorengo egunetan denak zenbaki hori eskatzen ibili ziren gure denda eta harategian. Denok diru mordo bat gastatu genuen horrek irten behar zuela sinetsita, eta azkenean ez zen atera.

Beste batean gauez sartu ziren, eta loteria lapurtu zuten: 28.527 zen zenbakia. Orditik, lapurtutako zenbaki hori urtero eskatzen dugu Gabonetarako. Urte hartan ertzainek ere erosi egin zuten, badaezpada.

Beldurrik sentitzen al duzue lanean?

Bai. Batez ere egun hauetan, kontuz ibiltzen gara. Halere, lan polita da. Arriskua du, beti ez datozelako bat zenbakiak, baina ederra da, ilusioz datorren jendeari zortea banatzen ari garelako eta oso jende jatorra dagoelako Azkoitian.



Non dago Zakelmari?

EZETZ TOPAU!



Rafa Miner, azaroko irabazlea.

Azaroko aldizkarian **Zakelmari non ezkutatuta zegoen asmatu behar zen:** 3. orrialdean zegoen. Asmatzaileen artean zozketa egin ondoren, Rafa Minerrek irabazi du Odriozola ardotegiaren saskia.

Datorren hilean Jausoroko Ogi Berri okindegiaren zortzi lagunentzako tarta zozkatuko du Maxixatzenek Zakelmari aurkitzen dutenen artean. Bidali erantzuna abenduraren 20a baino lehen, Kultur Etxeko postontzira edo maxixatzen@maxixatzen.eus helbide elektronikora.



FARMAZIAK (ABENDUA)

EGUNEZ: 09:00 - 20:00	
AZKOITIA: Jaen 943 85 07 85	1, 2, 3, 26, 27, 28, 29, 30, 31
AZKOITIA: Gisasola 943 85 12 35	4, 5, 6, 7, 8, 9, 10
AZKOITIA: Mendiola 665 49 67 44	11, 12, 13, 14, 15, 16, 17
AZKOITIA: Azpiazu 943 85 29 89	18, 19, 20, 21, 22, 23, 24, 25

GAUEZ: 22:00 - 09:00	URBITARTE AUZUNEA, 3
AZPEITIA: Beristain 943 81 19 49	<i>Urte osoan irekita.</i>

ONDO PASAU GABONAK!

Dean

Kale Nagusia, 41
943105262

ETXEZA
Taberna

ETXEZA ETXEA, Z/G
943852031

ONDO PASAU GABONAK!

TELEFONO INTERESGARRIAK:

Udaletxea	943 08 00 80
Udaltzaingoa	943 85 71 71
Suhiltzaileak	112
Epaitegia (Azpeitia)	943 02 51 91
Azkoitia Lantzen	943 85 71 51
Iraurgi Berritzen	943 85 08 43
Abarketatxo ludoteka	943 02 60 27
Artxamendi Gaztelekua (GIB)	943 85 60 27
Zubiaurre Elkargunea	943 85 25 44
KIUB	943 85 73 05
KZ Gunea	943 02 36 19
Ertzaintza	943 08 37 80
San Martin ondaregunea	943 85 71 70
Musikagunea	943 85 10 70
Anbulatorioa	943 00 76 10
Plaza Ondo	
Jubilatuen Etxea	943 85 21 68
Ileapaindegia	943 85 36 25
Taberna	943 08 94 12
Bake Epaitegia	943 85 15 97
San Jose Egoitza	943 85 13 23
Aizkibel liburutegia	943 85 08 98
AEK	943 15 10 89
Baztartxo	943 85 19 86
Gurutze Gorria	943 85 32 97
DYA	943 46 46 22
Lanbide (Azpeitia)	943 15 04 02
SOS Deiak	112
Txerloia Futbol Zelaia	943 85 20 61
Gurea pilotalekua	943 85 36 39
Torre Zuri erakustokia	943 85 71 70
Txerloia Tenisa	669 62 18 02
Kultur Etxea	943 85 71 70
Postetxea	943 85 33 93
Gipuzkoako Urak	943 85 08 83
Xabier Munibe haur eskola	943 08 07 37
Xabier Munibe ikastola	943 85 06 46
Floreaga ikastetxea	943 85 30 43
Bizilore	637 70 57 20
Urola Ikastola BHI	943 85 21 74
Garbigunea	696 67 64 56
Mankomunitatea	943 85 73 19
Tamaina handiko trasteak jasotzeko zerbitzua	943 45 98 74
Aldalur	943 85 27 18
Eusko Tren	902 54 32 10
La Guipuzcoana	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
Piper elkarteak	943 85 25 87
Taxiak	943 85 10 20

ESKURE KOMENI

02 "1,2,3...hemen da Miru" haurrentzako ikuskizuna, Baztartxo antzokian, 18:00etan.
Maxixatzenen IV. Orbel Jokuetako finala, Elkarguneko Intsausti aretoan, 17:00etan.

04 Euskararen Eguna ospatuko da Herriko Plazan, herriko ikastetxeekin 11:30ean eta herriko eragileekin 19:00etan.

17 Gabon Kanten XXIX. Emanaldia Baztartxo antzokian, 12:00etan.

23 Herrixen elkartearen otarren sari banaketa Torre Zuri erakustokian, 13:30ean.
Gaztemaniak antolatuta, The Limboos eta Urtzi Azkue & The Funk Junkers taldeen kontzertuak Elkargunean, 22:00etan.

31 Txalkor Txistulari Taldearen urte bukaerako kalejira, 11:00etan.
Musika bandaren urte bukaerako kalejira, eta ondoren kontzertua Kontzejupean, 12:30ean.

15 17. Bidaia Tertuliak: "Ghana, zure kabuz ezagutzeko herri erraza". Hizlariak: Arantxa Casta eta Pedro Ramiro. Kultur etxean, 19:30ean.

16 "Jainko basatia" antzezlana, Baztartxo antzokian, 19:30ean.

22 Pirritx, Porrotx eta Marimototsen "Borobilean" ikuskizuna Baztartxo antzokian, 16:00etan eta 18:30ean.
Bizkargi Musika Eskolaren eskutik, Gabonetako kontzertua: orkestra eta soka taldea. Elkargunean, 18:30ean.
Kirolari onenaren aukeraketa udaletzeko areto nagusian, 19:30ean.

24 Jaiotza eramangarrien lehiaketa, 10:30ean, Kontzejupean.
Abarketatxo Ludoteka Gabon eskean kalean, 11:00etatik 13:00etara.
Olentzero, 12:00etan, eliz atarian.
Musika bandaren kalejira, eta ondoren Gabon kanten kontzertua Azkoitiko Musika Bandarekin eta Irurgiri Abesbatzarekin, Kontzejupean, 18:30ean.

27-28-29 Gabon parkea, Elkargunean.

30 "Dantza kasting" haurrentzako ikuskizuna, 17:00etan, Elkargunean.


ZINEMA (Baztartxo)



ABENDUAK 1-2-3-4:
ASESINATO EN EL ORIENT EXPRESS



ABENDUAK 3:
HURRAK ETA LAPURRAK



ABENDUAK 8-9-10-11:
AUTOR



ABENDUAK 10:
EL PEQUEÑO VAMPIRO



ABENDUAK 15:
EN CUERPO Y ALMA



ABENDUAK 17:
COCO



ABENDUAK 17-18:
SUBURBICON



ABENDUAK 23-25:
LA LIBRERÍA



ABENDUAK 29:
TOM OF FINLAND



ABENDUAK 30 ETA
URTARRILAK 1:
PERFECTOS DESCONOCIDOS

GABON ZORIONTSUAK ETA URTE BERRI ON!

BIYONA

BERRIKUNTZAK

Proiektatu, koordinatu eta egin



Etxebizitza zaharberritu
nahi duzu?

GREMIOEN KOORDINAZIOA

BARNE DISEINUA

SUKALDE-BAINUGELAK

ETXEKO ALTZARIAK

ZERAMIKA / AROTZERIA

LEIHOAK



Biyonaren bermerik onena **bezeroak asebetetzea** da

www.biyona.net



AZKOITIA. San Joan 16, Axiri eraikina
ZARAUTZ. Abendaño industrialdea, 2
ZUMAIA. Santiago auzoa, 12

Tel. 943 852110

Tel. 943 135016

Tel. 943 143443

GO IBARGOI

ONDO PASAU
GABONAKI!



Kontzesionario
ofiziala:



Etorri eta probatu **KIA NIRO** berria!

HIBRIDOA NAIZ, CROSSOVERRA NAIZ.

3 urteko mantentze lanak doan.
7 urteko bermea.



MARKA GUZTIETAKO
AUTOENTZAKO ZERBITZUAK

 Mekanika orokorra

 Aire girotua

 Diagnostika

 Gurrpilak

 Lerrokatzea

 IAT-ITV aurreko azterketa

 Elektrizitatea

Deitu eta ekarri zure autoa
zeuk nahi duzunean:

943 850 761

San Joan auzunea, 14 - 20720 Azkoitia



HERRIXEN txartelarekin ordaindu
eta balia itzazu haren finantzazio
abantailak.

MILAR LARRAMENDI

Etzetresna elektrikoak
Julio Urkixo etorb. 16 | AZKOITIA
Tel. 943 85 18 97

Smart Retail
sistema berria



ULTRA HD
PREMIUM

MILAR Cooking&Chef

Sukalde Gunea
Xabier Munibe 11 (Liburutegi ondoan) | AZKOITIA
www.sukaldeak.eus

*Zatoz gure erakusketa
berria ikustera!*




ONDO PASAU



GABONAK!



ONDO PASAU GABONAK!



KOPISTEGIA

Inazio Iriarte, 1 • 20720 **AZKOITIA**
Tel.: 943 85 20 52 • Faxes: 943 85 20 91

j.artetxe@fkkopistegia.es